

EUSKADIKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN LINEAKO SAREA: ELKARLANERAKO TRESNA

Francisca Pulgar Vernalte, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzua (f-pulgar@ej-gv.es)

Sonia Marcos Maciá. ODEI, SA, informazioaren teknologietako zerbitzuak (s-marcos@ej-gv.es)

Laburpena

Inolako zalantzarik gabe, sare elektronikoen eraginez, aldatzen ari dira liburutegien eta erabiltzaileen arteko harremanak, eta errazten ari da informazioaren hedapena eta elkarlana. Komunikazio honetan Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi publikoen lineako sarearen ondoriozko hainbat alderdi deskribatzen dira. Izan ere, proiektu hori interesgarria eta erabilgarria izan daiteke beste profesional batzuentzat, bere garaian Valentziako sarea guretzat izan zen moduan¹.

Funtsezko hitzak: katalogo kolektiboak, elkarlana, liburutegi-sareak, liburutegi-zerbitzuak

1. Sarrera

Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeak Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala sortu zuen. Sistema horretan Euskal Autonomia Erkidegoko udal-liburutegi guztiak sartu dira. Liburutegi horien kudeaketa eta koordinazioa Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuari dagokio. Izan ere, Sistemari barne hartzen diren liburutegien jarduerak eta programak koordinatzeaz eta Euskal Autonomia Erkidegorako ondare bibliografikoari buruzko politika eta liburutegi-politika diseinatzeaz arduratu behar du Liburutegi Zerbitzu horrek².

Ildo horretan, 2002. urteko erdialdean, Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi publikoen sare elektronikoa abian jartzeko proiektua aztertzen eta planifikatzen hasi zen. Epe labur eta ertainerako proiektua zen. 2003. urtean hasia eta 2005. urteko abenduan amaitzea aurreikusi zen, hau da, hiru urteko iraupena izango zuen, eta, denbora-tarte horretan, ahalik eta liburutegi publiko gehien sartu behar zuen lineako sarean, ondorengo urratsetan. Integrazio hori borondatezkoa zenez gero, udal bakoitzak –dagokion udal-liburutegiko titular gisa– lineako sarean barne hartzea baloratu eta onartu behar zuen.

Sare hori lineako katalogo kolektibo hutsa baino gehiago izango zela hartu zuen aintzat Liburutegi Zerbitzuak. Batetik, abagune aparta zen Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalako liburutegien arloko jardunak dinamizatzeko; eta, bestetik, tresna paregabea zen liburutegien arteko elkarlana sustatzeko, eta herritarrei eskaintzen zaizkien liburutegi-zerbitzuak hobetzeko.

Lineako sarearen sorrera sustatu zuenean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak lortu nahi zituen helburu estrategikoen artean, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala egituratzea.
- Katalogazioa eta liburutegi-zerbitzu kooperatiboak bultzatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek informazioa errazago eskuratzea.


2. Abiapuntua

Proiektu honi hasiera eman zitzaionean, Euskal Autonomia Erkidegoko 273 liburutegi publikoetatik 150 liburutegi zegoen automatizatuta. Liburutegi horien informatizazioa 1994. eta 1999. urteen artean egin zen, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntzen deialdiaren bitartez. Guztiak Absys liburutegi-kudeaketako programarekin informatizatu ziren, Bilboko eta Donostiako udal-liburutegien sarea izan ezik. Horien automatizazioa dagokien udalaren esku geratu zen –Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzez kanpo–, eta beste programa informatiko batzuk aukeratu zituzten.

Duela urte batzuetatik hona, etengabe ari da mintzatzen liburutegiek informazioaren gizarterako sarbide gisa bete beharreko zereginaz, baina helburu hori betetzeko jauzi kualitatiboa eman behar zen; izatez, 2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan 100 liburutegi baino gehiago zegoen automatizatu gabe eta Internetarako sarbiderik gabe, eta horietako askok ez zuten ezta ordenagailurik ere.

Liburutegi batzuk zer egoeratan zeuden islatzeko datu estatistiko hauek nabarmen daitezke: 2003. urtean liburutegien % 48,43k ez zuen mailegu-modulua erabiltzen eta % 39k ez zuen OPAC zerbitzurik³.

1. grafikoan agerian geratzen da liburutegi publikoen automatizazioak nola egin duen gora 2003. urtearen eta 2005. urteko abuztuaren artean, liburutegi publikoak lineako sarearen proiektuan etengabe barne hartzearen ondorioz.



1. grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako liburutegi automatizatuak (iturria: absysNET)

	2003ko abendua		2005eko abuztua	
	<i>Liburutegi automatizatuak</i>	<i>Automatizazioa %</i>	<i>Liburutegi automatizatuak</i>	<i>Automatizazioa %</i>
Araba	17	% 42,50	39	% 97,50
Bizkaia	85	% 67,46	103	% 81,75
Gipuzkoa	58	% 62,37	73	% 78,49
GUZTIRA	160	% 61,78	215	% 83,01

1. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegien automatizazioaren ehunekoa (Iturria: absysNET eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal-liburutegiei buruzko azterlana: txosten estatistikoa)

3. Urratsak eta proiektuaren plangintza

Aditzera eman dugu proiektuaren helburua zela, hiru urteko epean, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko liburutegiek sarean lan egitea. Proiektua abiarazi baino lehen, proiektu-burua izendatu zen eta koordinazio-organoa eratu zen. Koordinazio-organo hori honako erakundeetako teknikariek osatu zuten: Liburutegi Zerbitzukoak, EJIekoak (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartekoak), Eusko Jaurlaritzako Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzakoak eta Baratz enpresakoak (SIGBren jabea). Egin beharreko urratsak koordinatzea zen organo horren helburua, hau da, epeak eta helburuak ezartzea, katalogoen bat-egiteak eta migrazioak planifikatzea, liburuzainen prestakuntza bideratzea, eta abar, betiere sor daitezkeen arazoei aurrea hartzen eta erantzuten saiatuz. Halaber, informatikaren eta telekomunikazioen ikuspuntutik beharrezkoak diren alderdiak aztertu eta berraztertu ziren, eta proiektua abian jartzeko beharrezko materiala eta dokumentuak prestatzen lan egin zen.

3.1. Tresna informatikoa hautatzea

Dokumentu-kudeaketako programa batean katalogoa osatzean datza proiektuaren lehen urratsa. Programa horrek gauza izan beharko du eusteko Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala osatzen duten liburutegiek sarean egiten duten lana. Proiektua esleitzean, honako parametroak baloratu ziren:

- Softwarea hornitzea eta instalatzea.
- Katalogoak ekartzea eta bat-egitea.
- Euskadiko katalogo kolektiboa sortzea.
- Prestakuntzaz arduratzea.

Lineako sarearen euskarri informatikoa esleitzeko lehiaketa publikoa deitu zen, eta absysNET euskarria aukeratu zen. Liburutegi-kudeaketako sistema hori ezartzeko ondoren zerrendatuko ditugun gutxienerako baldintza informatikoak behar dira:

AbsysNET izango duten lanpostuetarako gomendatzen diren hardwareko eta softwareko gutxienerako baldintzak:

- Ordenagailu pertsonala, Pentium III edo goragoko prozesadorea eta gutxienez 64 Mb-ko RAM memoria duena.
- Windows 2000 Professional edo Windows XP Professional (sistema eragileko bi bertsio horiek gomendatzen dira, baina Windows XP Home Edition sistemarekin ere funtzionatu beharko luke, baita aurreko Windows-eko beste bertsio batzuekin ere, baldin eta Internet Explorer 6.0ekin bateragarriak badira).
- Microsoft Internet Explorer 6.0, bezero-postu bakoitzean.
- Bereizmen handiko monitorea: 1024 x 768 pixelekoa gomendatzen da, bereizmen horretarako optimizatu baita absysNETen interfazea.
- Interneterako konexioa (gutxienez 512 kb-koa gomendatzen da)
- Periferikoak:
 - Windows-ekin bateragarria den inprimagailua, barra-kodeak inprimatzeko behar besteko kalitatea duena (laser-inprimagailua gomendatzen da).
 - Barra-kodeak irakurtzeko gailu optikoa. Pistola, eskanerra edo arkatz optikoa izan daiteke. Nolanahi ere, gailua teklatuari konektatuta egotea komeni da.

3.2. Lan-planqintza

Liburutegi-kudeaketako programa hautatu ondoren, aurreikusitako faseak aintzat hartuko zituen kronograma landu zen, baita kronogramaren etapa bakoitzean lortu beharreko proiektuaren alderdi garrantzitsuak eta jardunak ere.

Ondoren, labur-labur deskribatzen dira liburutegiak Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren lineako katalogoan barne hartzeko egindako urratsak.

- Bilera informatiboak egitea liburuzainekin eta Udalekin. Bilera horietan proiektuaren alderdi nagusien eta liburutegi publikoetarako onuren berri ematen zaie liburuzainei eta udalei.
- Liburutegiak hautatzea. Udalek igorritako gutunen artean hautatzen ditu Liburutegi Zerbitzuak fase bakoitzeko liburutegi automatizatuak. Fase bakoitzeko gehienez 25 liburutegi automatizatu hautatzen dira, eta liburutegi horiei sarean parte hartzeko interesa azaldu duten informatizatu gabeko liburutegi guztiak gaineratzen zaizkie, betiere data horretarako eskatzen diren baldintza teknikoak badituzte (ordenagailua, ADSL,...).

- Hautatutako liburutegiekin harremanetan jartzea. Hautatutako liburutegiekin harremanetan jartzen da, eta bilera baterako deia egiten zaie. Bilera horretan, egin beharreko urratsen berri ematen zaie, baita beren katalogoak bat-egiteko bideratuko diren ekintzen berri ere:
 - Beharrezko baldintza teknikoei buruzko informazioa.
 - IZENPEren ziurtagiriaren lorpena. Ziurtagiri horrek inolako zalantzarik gabe identifikatzen du liburutegiko erabiltzailea liburutegi-kudeaketako programan.
 - Katalogoak ekartzeko prozesuaren azalpena.
 - AbsysNET programako prestakuntzari buruzko informazioa.
 - Jardun-kronogramaren ezarpena (ikastaroen datak, katalogoak emateko epeak, katalogoak migratzeko behin betiko datak).
 - Irakurlearen txartel bakarrari buruzko informazioa (IZENPE).
 - Funtsak berriro etiketatzeko prozedurari buruzko azalpenak, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko lineako katalogoan barne hartzeak aleen barra-kodeak berriro zenbakitzea baitakar. Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du liburutegietako aleei etiketak berriro jartzeko prozesuaren kostuaren % 50, eta udalek gainerako % 50 hartzen dute beren gain.

3.3. Liburutegiak barne hartzea


Liburutegiak lineako sarean barne hartzeko prozesua 2004 eta 2005 artean garatu diren 6 fasetan egituratzen da.

Proiektuaren lehen fasean (2004ko urtarrila-maiatza) honako udal-liburutegiak barne hartu ziren katalogoan: Gasteizko, Getxoko, Abadiñoko, Leioako, Irungo eta Etxebarriko udal-liburutegiak. Horrela, liburutegi automatizatuetak 28 katalogok egin zuten bat. Gasteizko, Getxoko, Leioako eta Irungo udal-liburutegiak hautatzeko arrazoia argia zen; ale eta bazkide kopuru handia zuten. Gainera, liburutegi horiek proiektuari oinarri egokiarekin hasiera emateko aukera ematen zuten, irakurle kopuruari dagokionez zein ale kopuruari dagokionez. Abadiño eta Etxebarri hautatzean bi faktore hartu ziren aintzat; batetik, udal horiek erakutsi zuten interesa, eta, bestetik, bi liburutegi “ertain” barne hartzeko beharra, etorkizuneko barne hartzeetarako eredu izango baitziren.

Bestalde, lehen etapa horretan, Kultura Sailak kudeatzen zituen funts bibliografikoak txertatu ziren –zehazki, lege-gordailuari dagokion katalogoa eta ondare bibliografikoko erregistroak (Loiolako Santutegiko, Lazkaoko Monastegiko eta Gasteizko Seminarioko liburutegiak)–.

Lehen fase horretan, edo fase pilotu horretan, aditzera emandako liburutegiak barne hartu ondoren, beste 5 txertatze izan ziren. Hortaz, 2005eko ekainerako 215 liburutegi barne hartu ziren lineako sarean⁴.

Jarraian, proiektuaren lehen bost faseetako liburutegien, dokumentuen, aleen eta irakurleen datu estatistikoak ikus ditzakezu.



2. grafikoa. Proiektuaren hainbat faseetan barne hartutako liburutegiak (Iturria: absysNET)

Fasea	I	II	III	IV	V	GUZTIRA
Liburutegiak	28	26	27	23	21	125
Dokumentuak	224.307	96.594	78.863	39.028	21.340	460.132
Aleak	425.853	483.073	340.631	276.028	205.138	1.730.723
Irakurleak	63.350	79.113	11.537	18.814	5.099	177.913

2. taula. Datuak migratzearen faseak eta emaitzak (Iturria: absysNET)

4. Herritarrentzako zerbitzuak

Aipatu dugu lineako sarearen bitartez lortu nahi ziren helburuetako batzuk honakoak zirela: herritar guztiek informazioa eskura izan dezaten erraztea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi-zerbitzuen eskaintza hobetzea, sare elektronikoen eskaintzen dituzten aukerez baliatuta.


4.1. Txartel bakarra

Gero eta gehiago dira lanarengatik, ikasketengatik edo oporrengatik inguruko herrietara edo hirietara jotzen duten herritarrak. Testuinguru horretan, agerikoa da txartel bakarria oso lagungarria izan dela Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi-zerbitzuetarako; hobekuntza nabarmena izan da.

Orain arte, erabiltzaile batek liburutegi bateko baino gehiagoko zerbitzuez baliatu nahi izanez gero, liburutegietako bakoitzean sartzeko txartel bat eduki behar zuen, edo, bestela, etxera itzultzerantz itxaron behar zuen bere ohiko liburutegi publikoko zerbitzuak erabiltzeko.

Sarea abian jarri zenez geroztik, txartel bakar batekin sareko edozein liburutegitara sar daiteke, eta, beraz, saihestu egiten da liburutegi bakar batean izena emandako irakurleen etena edo zatiketa; saihestu egiten da irakurle horiek liburutegi jakin bateko zerbitzuetara soilik mugatuta egotea. Onura hori are nabarmenagoa da udalerrri mugakideen kasuan, batetik besterako joan-etorri ugari egiten baita; izatez, erabiltzaileak joan-etorri horietaz balia daitezke inguruko liburutegietako zerbitzuez ere gozatzeko.

Proiektuaren helburuetako bat, txartel bakar horri esker, lineako sarean barne hartzen diren liburutegien mailegu kopurua gehitzea da. Datu estatistiko bat emateko, 2005eko urtarrilaren eta uztailaren artean, guztira, **595.080 dokumentu mailegatu** ziren. Gorako joera nabaria da.



3. grafikoa. Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren lineako sarearen liburutegietako mailegu kopurua (2005eko urtarrila eta uztaila artean) (Iturria: absysNET)

4.2.

IZENPE txartela edo "txartel digitala"

Txartel bakarra edukitzea aurrerapen handia izan zen erabiltzailearentzat, askoz ere errazagoa baitzen liburutegi-zerbitzuez baliatzea. Hala ere, beste urrats bat egitea interesgarria izango zela pentsatu zen, eta irakurle-txartel gisa ziurtagiri digitala (IZENPE) eskaintzea hausnartu zen.

Informazio gisa, nabarmendu behar da IZENPE⁵ dela Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek sortutako ziurtapen-erakundea. Erakunde horrek du ziurtagiri digitalak jaulkitzeko eta kudeatzeko ardura, hau da, erakunde hori arduratuko da Internet bidez eskainitako zerbitzuetara sartu nahi duen pertsona argi identifikatzeko ziurtagiri digitalez. Txartel digitala lortzeko legezko baldintza bakarra eskatzen da, hamasei urte edo gehiago edukitzea.

Horrela, zerbitzu publikoak modernizatzeko prozesuko parte aktibo bihurtu dira liburutegiak. Izatez, administrazioarekiko harremanetarako txartel digitala erabiltzea proposatzen duten ekimenen artean dago liburutegi-zerbitzuetarako sarbidea. Horrenbestez, errenta aitortpena egiteko edo eroldako ziurtagiria lortzeko, besteak beste, erabil daitezkeen txartel berarekin, kudeatu ahal izango dituzte herritarrek etxetik bertatik liburutegiko berritzeak, bideratu ahal izango dituzte liburuen eskariak, indargabetu ahal izango dituzte erreserbak, eta abar.


2005eko martxoan, txartel digitala txartel bakar gisa erabiltzeko aukera eskaini zitzaizkien lineako sareko liburutegiei, eta orduz geroztik 20 liburutegik onartu dute ekimen hori. Guztira 4.584 txartel jaulki dira, hau da, data horretatik aurrera jaulkitako txartelen % 16. Haatik, zenbateko hori gehitzea espero da, laster Gasteizko liburutegietan jarriko baita abian. Gainera, azken fasean sarean barne hartu diren beste udalerrri batzuk ere, segur aski, txartel digitala jaulkiko dute liburutegiko txartel gisa.

4.3. Internet bidezko liburutegi-zerbitzuak

Liburutegi publikoa, definizioz, zerbitzu publikoa da, eta, hala den aldetik, herritarrek administrazioetako zerbitzu publikoetan eskatzen duten kalitateko eta hobekuntzako prozesu horretan dago murgilduta. Gure kasuan, sare elektronikoei esker, liburutegiek liburutegi-zerbitzuetan parte hartzen dutela eta zerbitzu horien hobekuntza sustatzen dutela ikus dezakegu; azken finean, herritarrei eskaintzen zaizkien askotariko zerbitzu publikoetako bat da. Hortaz, liburutegiek urrats handia egin dute liburutegi-zerbitzuak berritzeko garaian, eta zerbitzu horiek modu erosoagoan eta arinagoan eskaintzeko garaian; aukera handiko tresna bihurtu dira.

Internet bidez, eta OPAC erabiliz, herritarrak hainbat zerbitzuz balia daitezke beren etxeetatik edo beste edozein lekutatik. Orain arte, nahitaez bertaratzea eskatzen zuten zerbitzuak ziren zerbitzu horiek, hala nola:

- Informazio bibliografikoa bilatzea eta berreskuratzea. Katalogo kolektiboak sinpleago egin du material bibliografikoak edo informazioa bilatzeko eta aurkitzeko prozesua. Bilaketa bakar batekin sareak eskaintzen duen informazio eguneratu guztia izango dugu eskura. Horrez gain, egilea, gaiak eta antzeko beste datu batzuk beste datu-base batzuetan edo Interneteko bilatzaileetan (Bilgunea, Rebiun, Google, eta abarretan) bilatzeko aukera ematen du programak.
- Maileguak eta erreserbak egitea eta indargabetzea.
- Maileguak berritzea.
- Desideratak igortzea.
- Gaien araberako nork bere bibliografiak lantzea.
- Profesionalek landutako gai interesdunen irakurketa-gidetara sartzea.
- Liburutegietara iritziak, iradokizunak eta abar helarazteko aukera izatea.
- Baliabide elektronikoetara sartzea (Ocenet eta Harluxet).




4. grafikoa. Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko OPAC WEBerako sarrerak (2005eko urtarrila eta uztaila artean) (Iturria: absysNET)

4.4.

Interfazea eta bilatzaile elebidunak

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan herritarren % 32,3 euskalduna da, % 23,1 ia euskalduna da, eta % 44,6 erdalduna da. Ia gazte guztiek dakite nolabait euskara, eta 40 urtetik beherako asko euskaran alfabetatuta dago. Hori dela eta, katalogoak bete beharreko baldintza nagusietako bat informazioa elebidun eskuratzea da, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz. Bilatzailearen interfazeak euskaraz eta gaztelaniaz aurkezten dira, baita indizatzeko terminoak edo gaiak ere. Hala, kontsultak zein hizkuntzatan egin nahi dituzten hautatzeko aukera izango dute erabiltzaileek.



5. grafikoa. Euskara Euskal Autonomia Erkidegoan (Iturria: Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema⁶⁾)

Laburbilduz, esan daiteke liburutegi publikoen lineako sareak homogeneizatu egin dituela Euskadiko liburutegi-zerbitzu publikoez baliatzeko prozesuak eta izapideak, bai liburutegien erabiltzaileentzat, bai herritarrentzat, oro har. Sarean funtzionatzen hasi ziren lehen egunetik bertatik, liburutegiek formulario berdinak erabiltzen dituzte txartela lortzeko, mailegurako politika komuna jarraitzen dute, eta OPAC bakarra erabiltzen dute informazioa eskuratzeko. Azken finean, prozesu horiek liburutegi publikoaren irudia hobetzen laguntzen dute.

5. Sareak profesionalentzat dituen alde onak

Liburutegi publikoetan egiten den lana isolamenduko eta bakartasuneko irudipenarekin lotu ohi da. Liburuzain bakoitzak hainbat zalantza argitu behar ditu, eta ez dira berez edo soilik bere liburutegiari dagozkion zalantzak izaten. Ia profesional guztiek eman dute aditzera beste lankide batzuekin esperientziak trukatzeko beharra dutela. Ildo horretan, aditzera eman dezakegu sare elektronikoek oztopo fisiko hori eteten dutela, eta profesional ugari biltzen dituztela eguneroko prozesuetan. Izan ere, liburuzainek

liburutegia kudeatzeko programa bera erabiltzen dute, eta lan egiteko prozedura berei jarraitzen diete.


Horrenbestez, lineako sarea abian jartzeak hainbat onura ekarri die liburuzain guztiei, eta onura horien artean honakoak nabarmen daitezke:

5.1. Politika komunak


Sareak ekarri duen onurarik handienetako bat sarean parte hartzen eta elkarlanean diharduten liburutegi guztien kudeaketa koordinatua izan da. Prozesu teknikoak bateratu dira, hala nola katalogazioa, mailegu-politika, produktuak inprimatzea, eta abar. Hori dela eta, Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuak prozedura-eskuliburuak landu ditu, eta sareko liburutegietako langileentzako prestakuntza-ikastaroak eskaini ditu, liburuzainen sareko lana erraztearren.

5.2. Katalogo bibliografiko bakarra


Jakina da etengabe eguneratzen den katalogo bakarra partekatuta denbora eta baliabideak aurrezten direla. Azken finean, katalogazio bikoiztuak saihestu nahi dira, eta lana optimizatu nahi da, 6., 7. eta 8. grafikoetan islatzen diren datuek erakusten duten moduan. Autoritate elebidunen katalogo komuna⁷ gaineratu behar diogu horri; izatez, autoritate jakin bat jasotzen duten erregistro bibliografiko guztiak berreskuratzeko aukera ematen du katalogo komun horrek, bilaketa bibliografikoa euskaraz edo gaztelaniaz eginda ere.



6. grafikoa. Proiektura txertatutako automatizatu gabeko liburutegietako aleen atlasa (2004ko azaroa – 2005eko abuztua) (Iturria: absysNET)



7. grafikoa. Katalogazioak guztira (2005eko urtarrila-abuztua) (Iturria: absysNET)



8. grafikoa. Katalogazioen eta aleen alden arteko konparazioa (2005eko urtarrila-abuztua) (Iturria: absysNET)

5.3.

Sareko profesionalen arteko komunikazioa

Sarearen barruan lan egiteak **informazioa bateratzeko lana** sustatzen du. Izan ere, lantaldean sorrera sustatu da, eta, horrela, liburutegietako profesionalen arteko elkarlana bultzatuko da, eta profesional horien arteko komunikazioa areagotuko da. Bestalde, foro bat eratu da, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren lineako sareko katalogoari atxikitako liburutegietako profesional guztien topalekua izan dadin.

5.4. Datu estatistikoak biltzea eta aztertzea

Liburutegi guztietarako parametro komunak dituen lineako sareak guztiz erraztu du datuak biltzeko lana, eta, ondoren, txosten estatistikoak lantzeko lana.

5.5. Erabiltzaileentzako arreta zentroa

Kultura Sailak sarean barne hartzen diren liburutegi guztietarako etengabeko zerbitzua eskaintzen du. Lineako sarearekin lotzen diren gertakari guztiak bideratzen ditu, eta arazo komunak hautematea eta, ondoren, konpontzea errazten du.

6. Ondorioak: lorpenak eta erronkak

Komunikazio honetan zehar, Euskadiko liburutegi publikoen lineako sarearen etapak, jardunak eta hobekuntzak deskribatu ditugu. Horretarako, honako alderdiak ezinbestekoak izan dira, eta lorpenentzat jotzen ditugu:

6.1. Sailen arteko elkarlana


Proiektua Kultura Saitetik sortu bazen ere, behar-beharrezkoa izan da Eusko Jaurlaritzaren Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen inplikazioa, batez ere arkitektura informatikoa, komunikazioen abiadura eta abar definitzeko. Liburutegi Zerbitzuarentzat, haatik, suspertzailea izan da proiektu hori bere garrantzi eta esanahi osoarekin aintzat hartu izana eta bultzatu izana.

6.2. Erakundeen arteko elkarlana

Sarea abian jartzearen arrakasta udal-liburutegietako liburuzainen parte hartzean oinarritu da, hein handi batean bederen. Izan ere, hasiera-hasieratik parte hartze aktiboa izan dute liburutegietako katalogoak migratzeko beharrezko prozesu guztietan. Proiektu honen eragile nagusi bihurtu dira.

6.3. Erabiltzaileak eta sarea

Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala eratzearekin batera, liburutegiak herritarren artean proiektatzea izan da sarearen helburu nagusietako bat. Ildo horretan, garrantzi handikoa da Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegietako **bazkide aktiboen** kopurua gehitzearen alde lan egitea. Zerbitzu profesionalak eta erakargarriak eskaini behar dira, teknologia berriak osatuko dituztenak eta informazioaren gizartea finkatzen lagunduko dutenak.



9. grafikoa. Sareko liburutegietako bazkide kopuruaren bilakaera (2001-2004) (Iturria: absysNET eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal-liburutegiei buruzko azterlana: txosten estatistikoa)

URTEA	2001	2002	2003	2004
Araba	0,17	0,18	0,21	0,23
Bizkaia	0,16	0,20	0,22	0,35
Gipuzkoa	0,22	0,22	0,22	0,35
EAE GUZTIRA	0,19	0,20	0,22	0,32

3. taula. Sareko liburutegietako bazkide aktiboen indizea, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleei dagokienez (Iturria: absysNET eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal-liburutegiei buruzko azterlana: txosten estatistikoa)

Euskadiko liburutegien lineako sarea sortzeko proiektua 2005eko abenduan amaitzen den arren⁸, beste lan-etapa baten hasiera baino ez da izango. Izatez, erdietsitako lorpenei beste erronka batzuk gaineratu beharko zaizkie 2006. urtetik aurrera, lortu beharreko helburu bihurtuko diren erronkak gaineratu beharko zaizkie, hau da:

- *Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.*

Liburutegi Zerbitzua proiektuaren emaitzen jarraipena ari da egiten, eta txostenetan eta estatistiketan ari da hori islatzen.

- *Erakundeen arteko elkarlanerako espazio iraunkorrek sortzea, honako alderdiak indartzeko:*

- Katalogo bibliografikoaren kalitatea. Alderdi horretan, lehentasuna du katalogoa araztea, bikoiztutako erregistroak ezabatzea, eta dokumentu berriak katalogatzea, betiere xede horretarako idatzitako prozedura-eskuliburuei jarraituz.
- Liburutegi publikoetako profesionalak trebatzea. Lan kooperatiboari esker, errazagoa da sareko profesionalen prestakuntza-premiak hautematea. Gauzak horrela, 2005. urtean, profesionalentzako katalogazio-lantegiak antolatu dira. Lantegi horietan, Liburutegi Zerbitzuak ezarritako katalogazio-arteztarauetan trebatu nahi dira liburuzainak. Ekimen horren arrakasta dela eta, Sailak gisa horretako jarduerak antolatzen jarraitzeko asmoa du.
- Lineako katalogoan barne hartzen ez diren udal-liburutegiekiko harremanak.

- *Zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna ebaluatzea (erabiltzaileen gogobetetasuna/iguripenak).*

Erabiltzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzuen kalitatea areagotzearen alde lan egin behar da. Horretarako, askotariko tresnak erabiliko dira, hala nola gogobetetasun-inkestak eta erabiltzaileentzako FAQak –webgunetik eskura daitezkeenak–. Horrez gain, herritarren eta liburutegien arteko harremana sustatuko duten zerbitzu berritzaileak eskainiko dira:

- liburutegien arteko mailegua erregulatzea,
- erabiltzaileak on-linea prestatzea,
- bilduma digitaletarako sarbidea erraztea,
- liburutegi-marketinga,
- eta abar.

Oharrak

- ¹ Valentziako Irakurketa Publikoaren Sarearen Katalogo Kolektiboa: 21 hilabete abian izan ondorengo lorpenak eta arazoak. Francisca Cerdá Vara eta Ignacio Latorre Zacarés. Internet-en ere eskura dago: <<http://xlpv.cult.gva.es/files/catcolPV.pdf>> [Kontsulta: 2005eko irailaren 26an]
- ² 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa. Interneten ere eskura dago: <<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1990/08/9002387a.pdf>> [Kontsulta: 2005eko irailaren 26an]
- ³ Euskal Autonomia Erkidegoko udal-liburutegiei buruzko azterlana: txosten estatistikoa.
- ⁴ Proiektuan zein liburutegi barne hartzen diren jakin nahi baduzu, kontsulta ezazu web-orri honetan: <http://www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua>
- ⁵ Informazio gehiago nahi izanez gero: <http://www.izenpe.com>
- ⁶ Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema. http://www1.euskadi.net/euskara_adierazleak
- ⁷ AUBI (autoritate elebidunen katalogoa), Interneten ere eskura dago: <<http://www.liburutegiak.euskadi.net/aubi>> [Kontsulta: 2005eko irailaren 26an]
- ⁸ Komunikazio hau idatzi den bitartean, proiektuaren 6. eta azken fasean barne hartuko diren liburutegiekin lan egiten hasi da.